

ESKU-IDAZKETA ETA TESTU ELEANITZEN ARTEKO LOTURAK

Tesiaren egilea: Irune Ibarra Lizundia

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Saila

Tesi-zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui

Tesiaren laburpena:

Badirudi eskuz eta paperean idaztea iraganean gelditu den dinosauro bat, errelikia bat edo modaz pasatako zerbait dela. Horrela, guraso, ikasle, irakasle eta politikari asko ari da galdetzen zer dela-eta ikasi behar den eskuz idazten, aukeratu, sakatu, ukitu edo klikatu al dugun aro teknologiko aldakor honetan. Gainera, murriztu beharreko kontua dirudi, edukiz gainezka dagoen eskolako curriculumean (Schlagal, 2007; Medwell & Wray, 2008; Berninger, 2013a; Konnikova, 2014). Horixe egin zuten Estatu Batuek 2011. urtean, murriztu eta orain dela gutxi Finlandiak bide bera hartu du (Tubia, 2014).

Testuinguru digital honek inguratzen gaituen arren, nazioartean badira haurren esku-idazketa sistematikoki aztertu duten ikerketak eta, ikerketa horien arabera, esku-idazketaren hil-kanpaiak goizegi jo dituzte (Saperstein Associates, 2012). Ikerketetan ikusitakoa aintzat hartuz, garatzen ari diren haurrek idazteko prozesu bereziak edukiko lituzkete, idazle helduetatik eta trebeetatik kualitatiboki desberdinak. Horrela, garatzen ari diren haurren idazketa-ezaugarriak aztertuz eta bilduz, marko bat osatu da, eta zenbait ikertzailek eskatzen dute esku-idazketaren izaera, irakaskuntza eta ebaluazioa berraztertzea. Bestalde, haurrak geroz eta ohituago daude hizkuntza desberdinetan idazten eta Euskadiko eskoletan garatzen ari den Heziberri 2020 Planean hizkuntza guztiak modu bateratuan irakastea eta ebaluatzea planteatu da. Hala ere, idazketa eleaniztun goiztiarra ez dugu behar bezala ezagutzen, ez eta bertan eragiten duten faktoreak ere.

Ikerketa-lanaren egitura honakoa da: lehenik eta behin, marko teorikoak ematen dio hasiera tesiari, ikerketa-lanaren testuingurua ahal bezain zehatzena izateko. Era berean, marko teorikoa hiru kapitulu edo azpiataletan banatuta dago: lehen kapitulua idazketa da, bigarrena hastapeneko idazketa, eta hirugarrena idazketa eleaniztasunean eragiten duten faktoreak. Horrela, lehen kapituluan, idazketaren kontzeptualizazioak aztertu ondoren, berau xamurtzeko haurretan egin diren saiakerak ikusi ditugu. Ondoren, garatzen ari diren idazleak ez direla «heldu trebeak» ikusi dugu, eta, gero, Berninger-en garapeneko idazketa-markoa eta bertatik sortu diren ikerketak deskribatu ditugu. Bigarren kapituluan, hastapeneko

idazleak zein diren definitu dugu eta jarraian, hizkuntzaren ildo tradizionala, holistikoa eta modularra arakatu dugu; geroxeago, 1975. urtetik hona hastapeneko idazketa eleaniztasunaren inguruan burututako ikerketak azaldu dira, bai eta Euskadin nola dagoen planteatuta eleaniztasuna eskolan. Hirugarren kapituluan, hastapeneko idazketa eleaniztasunean eragiten duten faktoreak zehaztu dira, lan honen alderdi enpirikoan aztertu diren faktoreak kontuan hartuta. Horrela, adimenak, generoak, hizkuntza-gaitasunak, irakurketak, testu-generoak, ikasmilak, hizkuntzaren erabilerak eta jaioterriak hastapeneko idazle eleaniztunen idazketan sorrarazten dituzten desberdintasunak azaltzen dira.

Marko teorikoa idatzi eta gero, lan honetan zehar erantzuten saiatu garen helburuak eta ikerketa-galderak aurkezten dira. Galderokin batera, erabilitako metodologia xehetasunez azaltzen da: bai lagina, bai ikerketa burutzeko behar izan diren neurtze-tresnak. Segidan, aipatu tresnekin ateratako emaitzak aurkeztu, eta aurrez ezarritako ikerketa-galderetan oinarrituz, emaitzak azaltzen dira. Azkenik, konklusioak, ikerketaren mugak, hezkuntzarako zenbait orientazio eta azken oharrak agertzen dira. Lan honek arlo edo diziplina ezberdinak jorratzen ditu, besteak beste, hezkuntza, hizkuntzalaritza, psikologia kognitiboa, garapeneko neurologia eta soziolinguistika.